

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako 103 ikastetxetako 8.500 haur fruta eta barazkiak kontsumitzeko eskola-kanpainan parte hartzen ari dira

Esparza eta Iribas kontseilariak eta Osasuneko zuzendari nagusiak kanpaina aurkeztu dute gaur Iruñeko Arrotxapea ikastetxean

Lunes, 22 de abril de 2013

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Kontseilari José Javier Esparzak; Hezkuntza Kontseilari José Iribasek; eta Osasuneko zuzendari nagusi Cristina Ibarrolak 2012-2013 ikasturteari dagokion fruta eta barazkien kontsumoa sustatzeko hirugarren eskola-kanpaina aurkeztu dute gaur goizean Iruñeko Arrotxapea ikastetxe publikoan. Kanpainan, Haur Hezkuntzako (3 urtetik 6 urtera bitartekoa) 2. zikloko 8.500 bat ikasleek parte hartuko dute, Foru Komunitateko 72 udalerritako [103 ikastetxe](#)tan dauden ikasleek, hain zuzen.



Esparza kontseilaria, Ibarrola, Iglesias eta Iribas kontseilaria, Arrotxapea Hiko ikasleekin.

Ekitaldian ikastetxeko zuzendari Alberto Iglesiasek ere parte hartu du.

Ekimen horren helburua da, alde batetik, haurren artean ohitura osasungarriak errotzea, fruta eta barazkien kontsumoa bereziki, hainbat gaixotasuna prebenitzeko, haurren obesitatea esaterako; bestetik, ezagutzera ematea, Nafarroako produktuen dibertsitatea eta kalitatea, bertako lehen mailako ekoizleak, eta bete behar dituzten elikagaien segurtasun zein kalitateko baldintzak, hori guztia ikasleen artean elikadura osasungarria eta Nafarroako nekazaritza-jardueratik datorren elikadura sustatzeko xedearekin.

Kanpaina iragan apirilaren 8an hasi zen eta 8 astez iraungo du. Ikasleen artean astean fruta, barazki edota zukuen hiru anoa banatuko dira. Anoa horietako bi gutxienez pieza osoak izan beharko dira, 150 gr-koak gutxi gorabehera. Zukuen kasuan, ezingo du izan erantsitako azukrerik, gantzik edo gantzik eta ezta erantsitako gozagarririk ere. Produktuak eskola barruan jan beharko dituzte soilik kanpainarekin bat egin duten ikastetxeetako ikasleek, eta ezingo dira erabili ikastetxeko bazkariak egiteko orduan.

Kanpainak 83.566 euroko kostua du, guztira, % 50 Nafarroako

Gobernuak finantzatzen du (41.783 euro jarri du) eta beste % 50 Europar Batasunak. Elikagaien banaketa eta hornidura deialdi publiko baten bidez esleitu zitzaion AN Kooperatiba Sozietatea Taldeari, eta kanpaina egoki garatuko dela zaintzeko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio, Hezkuntzako eta Osasuneko departamentuetako langileek osatutako batzorde misto bat dago.